

LEHEN PARTEA

EZTIA

I

Georgiara iritsi baino lehen zoriontsu ziren gurasoak; gazte ere bai, eta agian gaztetasunaren eta zoriontasunaren arteko korrelazio zuzen horren ondorio logikoa baino ez zen haien egoera. Hori, eta beste pixka bat elkar ezagutu eta elkar maitatzearena ere bai, ziur aski. Horrek ere laguntzen du. Gazte ezkondu ziren, amak hamazazpi eta aitak hogeitau urte zituela. Ezkonberritan iritsi ziren Georgiako lur hauetara, Ochlockonee ibaiaren ertzean aitaren osaba batek utzitako lurretan etxea altxatzera.

Hezeak eta haizeak jandako oholtza pila hartan ekin zion bizitza berriari bikote gazteak. Egur multzo forma gabekoa zen hasiera batean etxea, baina teilatua gutxienez osorik eta salbu zeukan, eta ez da gutxi, teilatua erortzen uzten denetan uzten omen da eta etxea erortzen. Hala, baliatu zitezkeen oholak tratatu, bota beharrekoak bota eta berriak zerrategian hartuta zutitu zituen aitak paretak. Paretetan leihoentzako zuloa egin eta kanpotik urdin kolorez margotu zituen leihozangoak. Gainontzekoa, zuriz jantzi zuen. Urtero margotu behar izaten zuen etxea berriz

ere kanpotik, hezeak bereak eta bi egiten zituelako, baina ez zitzaion askorik axola. Margo zuri hark argia ematen zion inguruari eta amaren begitartea ere alaitzen zuen, eta hori aitari nahikoa baino gehiago zitzaion.

Barruan, hiru gela banatu zituen: sukaldea eta egongela denak batera alde batean, logela bi beste aldean. Komunak kanpoaldean atondu zuen, etxearen atzeko partean. Portxean, egurrezko arkupearen babesean, zumezko kullukari bat. Bertan esertzen zen egunero zerrategiko lana bukatzen zuenean, zerbeza bat oinetan eta eskuz bildutako zigarroa ezpainen. Eta nik esango nuke orduan pentsatzen zuela bizitza sinplea zela sarritan, eta sinpletasun horrek edertu egiten zuela existentzia bera.

Ibaiertzetik hain gertu bizita, Ochlockonee ibaiko urek, gaindi egiten zuten bakoitzean, indarrez hartzen zituzten etxe inguruko lurak. Gurasoek, halakoetan, arnasari eutsi baino ez zuten izaten, urak noiz jaitsiko zain, egindako kalteak zenbatetsi ahal izateko. Kalteak konponezinak suertatu ohi ziren urak gogor eginez gero, eta konpon zitezkeen urak azkar alde egitea erabakitzen bazuen. Hala suertatzen da bizitzan ere lantzean, badirela konponezinak direnak, eta besteak, urari begira egon ondoren –luze begira egon ondoren–, bere lekura itzuliko direla ematen dutenak. Urak bere lekura bueltatzen zirenean, tupelo ezta batzeari ekiten zion amak, udaberrian beti. Ezkondu aurretik zeuzkan diru apurrak baliatuta, abaraskak erosi eta erraz ikasi zuen ezta lantzen, tupelo ezta.

II

Tupelo ezia *Nyssaceae* familiako tupelo zuhaitza-
ren nektarretik eskuratzen da. Georgiako hegoaldean
eta Floridako ipar-mendebaldean hazten dira tupeloak,
Ochlockonee bezalako ibaiei begira. Bi edo hiru astetan
zehar, tupelo zuhaitzetako lorearen nektarra jasotzen dute
erleek. Hori baino lehen, erlezainak garbitu egin behar
izaten ditu abaraskak, aurrez landutako ezti arrunta ken-
duta. Gero, arboletatik gertu jartzen dira abaraska horiek,
erleak erraz irits daitezen fruitura. Loraldia bukatu bezain
pronto, jarraian bildu behar da eztia, beste ezti batzuekin
nahas ez dadin.

Tupelo ezia ez da sekula kristalizatzen. Hainbesteko
azukrea dauka frutarena, ezen ez den gogortzen; goi mai-
lako eztizat jotzen da eta medikuntzan erabiltzen da sarri,
dauzkan propietateengatik. Nik ez dut sekula gauza hain
gozoric probatu.

III

Udaberri sasoieta, hortaz, batetik bestera ibili ohi zen ama abaraskak hara eta hona mugituz, tupeloaren lore ederrenen bila. Loreak aurkitzen zituenean, eseri, erleei kantu goxo bat abestu eta bidea irekitzen zien. Han ateratzen ziren zoro-zoro erleak, lorea non. Irribarrez begiratzen zien amak, altxor txikiak bailiran. Uzta sasoiako asteak pasata, ezta potoetan sartu eta berak propio josten zuen oihal batekin estaltzen zituen potoak. Koadro zurigorrikoa zen oihala. Hura baliatuta, potoa estali eta lazo gorri-gorri batekin lotzen zuen oihal zatia. Eta izugarri eder gelditzen zitzaizkion beti potoak; kristala garbi-garbi, oihala gorri-gorri, eta tupelo ezta, hain urre koloreko.

Berak ez zuen oraindik jakingo baina, urteak edo urtarok gorabehera, uzta batzuk garratzak izaten dira; eta, lantzean, heriotza agertzen da keinuka, dantzan. Hori da konponezina omen den bakarra. Eta orduan, udaberria udaberri bada ere, uztak alde batera utzi eta doluari gogor heldu behar zaio, Ochlockonee ibaiaren hondo-hondora ez erortzeko.

IV

Lur berrietan bildutako bigarren urteko uztaren ondoren, uda erdialdean edo, haurdun gelditu zen ama. Eztia potoetan sartua zeukan jada, eta poto horietako asko salduak zeuzkan herrian. Denda batzuek, jatetxe gutxi batzuek eta beste zenbaitek erosten zioten eztia amari. Beste poto batzuk etxean bertan utzi zituen, etxera bila etortzen zirentzat gordeta. Eta azkenak, hau da, lehenengoak, bigarrenak eta hirugarrenak saldu ondoren gelditzen zirenak, etxeko bientzat.

Hasiera-hasieratik jakin zuen amak bi haur zekartzatza, medikuak berak esan baino lehen. Hala aitortu omen zion aitari. Berak ere ez omen zekien nola, baina bazekielako neskak izango zirela biak. Hori ere aitortu zion aitari. Medikuarik berria eman zionean ez zuen, beraz, inongo harriturarik erakutsi. Aurrez jada bazekien zer bait berretsi ziolako aurpegiarekin begiratu zion medikuari, hark zaindu egin behar zuela eta abarreko denak botatzen zizkion bitartean. Kasu egin zion, hori bai. Izugarri zaindu zuen bere burua.

Eta hala, hurrengo urteko martxo hasieran ibaiak gaindi egin zuenean, ahizpa bikiarekin batera jaio nintzen ni. Bikiak, berdin-berdinak, ispiluaren ispilu, ahoaren aho eta sudurraren sudur, eskuen esku eta zilborren zilbor, bata bestearen atzetik, baina heriotza bizitzaren atzetik doan bezala agertu nintzen ni lehenengo, bizirik, eta ahizpa gero, hilda. Eta agian baten batek esan diezazuke, haur jaio berria izanda, horrelako galeretan erreparatu ere ez dela egiten, begiak irekitzera ere iritsi ez zarelako oraindik, baina ez egin kontu horrelakoei; zeren niri ahizpa kendu didate. Ez dut ikusi. Eta ez dut usaindu haren azalik. Ez diot eskutik oratu, berarekin ibaira jaitsi eta amuarrainak arrantzatzeko. Ez dut haren minetan bat bera ere sentitu. Ez da izan. Eta ni banaiz; orduan izan nintzeneko beste naiz oraindik ere. Bera gabe, baina banaiz.

Baina bera, hain *sweet as tupelo honey, she's an angel of the first degree*¹, hain urrutiko hasieratik bertatik, nire galderei erantzunik eman gabe: nola dantzatzen da dolua, mugimendu elbarri bati esker ez bada? Nola kantatzen da mina, ahots-korda denak herdoiltzen dituen zigor-hots horrekin ez bada? Zeren inork ez du heriotzatik ezer jakin nahi, zintzurreraino sartzen zaizun arte. Eta tira, erabaki ahal izanez gero, agian nik neuk ere ez nuke heriotzaz ezer jakin nahiko.

Halarik ere, min erraldoi hura izan zen jaio gineanean suertatu zitzaigun gauza bakarra, min bat txorimalo aurpegiz mozorrotua; eta ahizpa bat, bere txikitasunean lihozko izaretan estalia. Inguruan dena lorez inguratua, dena lore morea inguruan, inguruan dena besarkada / eta

negarra / eta agurra. Ni ere, artean, hain txiki eta hain *sweet as tupelo honey* izango nintzen, ahizpa bezala, baina inork ez zuen nigan erreparatzen, bizirik gelditzen dena ziurtzat jotzen delako. Eta aurrera egin behar dela eta antzeko huskeriak esango zituzten inguruan; baina hori ikasi bitartean izenik gabeko gauzak ez omen dira, eta horregatik ez da ahizpa, eta horregatik ezin nuen sehaskatik haren ahotsik oihukatu. Birika jaio berriekin dolua abestu baino ezin nuelako egin, sehaska-kanta bat bailitzan. Eta galdetzen dut hala abestu behar ote den bizitza –eta heriotza bera ere bai–, inori ezertarako baimenik eskatu gabe. Ahizpa nire alboan neukalako, eta zer axola izenik ez bazuen nirea baldin bazen eta ni ere berea baldin banintzen; oraindik berari lotua nengoelako, oraindik berari lotua nagoelako, Ochlockonee ibaiak gainezka egiten duen ba-koitzean amuarrainak arrantzatzen.